

16. Ordenantza

Ordenanza nº 16

UDAL-TASEN ETA PREZIO PUBLIKOEN
EXENTZIOEI BURUZKO ARAUTEGIAREN
ERREGULATZAILEA

REGULADORA DEL REGLAMENTO
SOBRE LAS EXENCIONES DE TASAS Y
PRECIOS PÚBLICOS MUNICIPALES EN
LASARTE-ORIA

ORDENANTZA LASARTE-ORIAKO UDAL-TASEN ETA PREZIO PUBLIKOEN EXENTZIO EI BURUZKO ARAUTEGIAREN ERREGULATZAILEA

1. Artikulua.- Arautegiaren xedea

Honako Arautegi honen xedea, ondoren adierazten diren Lasarte-Oriako udal-barrutiko tasen eta prezio publikoen ordainketagatik aplikatu beharreko exentzioak eta hobariak finkatzea da, honako hauek zerbitzuagatik:

- 1.- Udal-Polikiroldegia
1.Tarifa: Abonuak
- 2.- Jangela Eskolarra
- 3.- Udal Musika Eskola
- 4.- Kultur Etxea
12. Tarifa: *Internetera sartzeko zerbitzua*
13. Tarifa: *Liburutegia*
- 5.- Udal Euskaltegia
- 6.- Hilerriko Serbitzuak
- 7.- Zabor bilketa
- 8.- Zerbitzu pertsonal eta materialen preztazioa.
2. Tarifa: *F o t o k o p i a bakoitzeagatik, folioko:*
3. Tarifa: *Hirigintzako zerbitzuari buruzko agirien fotokopiak.*
- 9.- Emakumeen Hiri-zentroko Zerbitzuak ematea.
- 10.- Haur Eskola

Aipatu tasatarako eta prezio publikotarako ezarritako exentzio eta hobarien onuradun izateko, Lasarte-Oria udalerrian gutxienez ere 3

ORDENANZA REGULADORA DEL REGLAMENTO SOBRE LAS EXENCIONES DE TASAS Y PRECIOS PÚBLICOS MUNICIPALES EN LASARTE-ORIA

Artículo 1.- Objeto

Es objeto del presente Reglamento fijar las exenciones y bonificaciones a aplicar por el pago de las tasas y precios públicos del término municipal de Lasarte-Oria que a continuación se señalan por la prestación de los siguientes servicios:

- 1.- Polideportivo Municipal:
Tarifa 1: Abonos
- 2.- Comedor escolar
- 3.- Escuela de Música Municipal
- 4.- Casa de Cultura.
Tarifa 12: Servicio acceso a Internet
Tarifa 13: Biblioteca
- 5.- Euskaltegi Municipal
- 6.- Servicios del Cementerio
- 7.- Recogida de Basuras
- 8.- Prestacion de servicios personales y materiales.
Tarifa 2: Por cada documento que se expida en fotocopia, por folio:
Tarifa 3: F o t o c o p i a d e documentos relativos a servicios de Urbanismo.
- 9.- Prestación de los Servicios Centro Cívico de la mujer
- 10.- Escuela Infantil

Para ser beneficiario de las exenciones y bonificaciones establecidas para las mencionadas tasas y precios públicos se requiere estar empadronado en el municipio de

urteko antzinatasunaz erroldatua egotea izango da baldintza.

2. Artikulua.- Aplikatu beharreko exentzioak eta hobariak

1.- Aipaturiko Udal tasak eta prezio publikoak ordaintzetik salbuetsiak egongo dira honako Arautegi honetako I. Eranskinetan agertzen diren "Urteko edo Hileko Gutxienezko Dirusarrerak" zutabeen isladaturikoez behetiko guztizko dirusarrera familiarrak dituzten subjektu pasiboak.

2.- Ezarritako kuotaren ordainketan %50eko hobaria lortuko dute lehenago aipaturiko Eranskinetako "Gutxienezko Dirusarrerak" eta "Ertainezko Dirusarrerak" zutabeetan adierazitako mugen artean (biak barne) kokaturiko guztizko dirusarrera familiarrak dauzkatenek.

3.- Ezarritako kuotaren ordainketan %25eko hobaria lortuko dute lehenago aipaturiko Eranskinetako "Ertainezko Dirusarrerak" eta "Gehienezko Dirusarrerak" zutabeetan adierazitako mugen artean kokaturiko guztizko dirusarrera familiarrak dauzkatenek.

4.- Inolako hobariren eskubiderik ez dute izango Gehienezko Dirusarrerak zutabeetan adierazitakoak gaintitzen dituzten guztizko dirusarrera familiarrak dituztenek.

5.- Hilerriko tasan exentziorako edo hobarirako eskubiderik ez dute izango, 1. Artikuluan adierazitako gainerako kontzeptuetarako kalifikazio hori eskuratu izan arren, aipatu hileta-zerbitzuak Aseguru-Konpainia baten bidez kontratatatuak dituzten zergapekoek ere, kasu horretan aipaturiko tasa ordaindu egin beharko dutelarik.

6.- Ondoren zehazten diren zerbitzu hauetan salbuespen eta hobarien onuradun

Lasarte-Oria con una antigüedad mínima de 3 años.

Artículo 2.- Exenciones y bonificaciones a aplicar:

1.- Estarán exentos del pago de las citadas Tasas y precios públicos Municipales aquellos sujetos pasivos que tengan unos ingresos familiares totales inferiores a los reflejados en la columna "Ingresos Mínimos Anuales o Mensuales" que figuran en el Anexo I del presente Reglamento.

2.- Obtendrán una bonificación del 50% en el pago de la Cuota establecida, quienes dispongan de unos ingresos familiares totales situados entre los límites indicados en la columna de "Ingresos Mínimos" y la columna de "Ingresos Medios", ambos inclusive, de los Anexos anteriormente referenciados.

3.- Obtendrán una bonificación del 25% en el pago de la Cuota establecida, quienes dispongan de unos ingresos familiares totales situados entre los límites indicados en la columna de "Ingresos Medios" y la columna de "Ingresos Máximos", de los Anexos anteriormente referenciados.

4.- No tendrán derecho a bonificación alguna quienes tengan unos ingresos familiares totales que superen los indicados en la columna de Ingresos Máximos.

5.- Tampoco tendrán derecho a exención o bonificación en la Tasa del cementerio aquellos contribuyentes que, aún habiendo obtenido dicha calificación para el resto de los conceptos señalados en el artículo 1º, tengan contratados dichos servicios funerarios a través de una Compañía aseguradora; en cuyo caso deberán abonar la referida tasa.

6.- Aquellos beneficiarios de las exenciones y bonificaciones que disfruten de

direnei zerbitzuetara joatea exijitzen zaie, onura horiek mantenduko badituzte:

- 2.- Jantoki Eskolarra
- 3.- Udalaren Musika-Eskola
- 5.- Udalaren Euskaltegia
- 10.- Haur-Eskola

Zerbitzu horietan salbuespena edo hobaria izateko eskubidea galduko dute hilabete batean justifikatu gabeko 10 absentzia baino gehiago izaten dituzten zergapekoek, kasu horretan dagokien tasa ordaindu beharko baitute.

3. Artikulua.- Kudeaketa

1.- Exentzioak edo hobariak, onuradunekin sortutako matrikula batetatik abiatuta kudeatuko dira. Aipatu matrikula urtero eratuko da eta honako arautegi honetan jasotako tasak eta prezio publikoak ordaintzetik salbuetsiak edo hobarituak gertatu diren subjektu pasiboez osatua egongo da.

2.- Dagokion exentzioa edo hobaria eskuratzeko, subjektu pasiboa honako arautegi honetako 5. Artikuluan adierazten diren agiriekin batera dagokion eskaera aurkeztera obligaturik egongo da.

Eskaerak egiteko epea hil bakoitzaren 5a baino lehen itxiko da hilero. Epe horretatik kanpo, huirrengo hiletik aurrera izango ditu eraginak.

3.- Hilabete bakoitzaren 30ean baino lehen, eta Gizarte-Zerbitzuetako Departamentuaren bidezko txostenaz, dagokion alkatetzaren dekretua diktatzeari ekingo zaio.

Ebazpena baiezkoa baldin bada, hura hartzen den unetik eta abenduaren 31 arte, honako araudi honen xede diren eta zergapetzeko egintza oraindik sortu gabe duten tasei eta prezio publikoei bakarrik eragingo die.

Subjektu pasiboaren egoera sozio-ekonomikoan inolako aldaketarik gertatu ezean,

los servicios que a continuación se detallan se les exige la asistencia a los mismos para mantener dichos beneficios:

- 2.- Comedor escolar
- 3.- Escuela de Música Municipal
- 5.- Euskaltegi Municipal
- 10.- Escuela Infantil

Perderán el derecho a bonificación o exención en estos servicios aquellos contribuyentes que presenten más de 10 faltas de asistencia en un mes sin justificar, en cuyo caso deberán abonar la tasa correspondiente.

Artículo 3.- Gestión

1.- Las Exenciones o bonificaciones se gestionarán a partir de la creación de una matrícula de beneficiarios. Dicha matrícula se formará anualmente y estará constituida por los sujetos pasivos que han resultado eximidos o beneficiados en el pago de las Tasas y precios públicos recogidos en el presente reglamento.

2.- Para la obtención de la exención o de la bonificación correspondiente, el sujeto pasivo estará obligado a presentar la correspondiente solicitud junto con la documentación que se señala en el artículo 5 del presente reglamento.

Los plazos de solicitud se cerrarán todos los meses antes del día 5 de cada mes. Fuera de este plazo surtirá efectos a partir del mes siguiente.

3.- Antes del día 30 de cada mes, y debidamente informado por el Departamento de Servicios Sociales, se procederá a dictar el correspondiente Decreto de Alcaldía.

En el caso que la resolución sea positiva, desde el momento en el que esta se adopte y hasta el 31 de diciembre, afectará solamente a las Tasas y precios públicos objeto de la presente normativa cuyo hecho imponible no se haya devengado todavía.

Salvo que se produzca alguna variación en la situación socio-económica del sujeto pasivo, la concesión de la exención o bonificación

exentzioa edo hobaria automatikoki urteroko balioz luzatua geratuko da.

4.- Halaber, subjektu pasiboak, kargatutako ihardueren urtealdian gertatzen diren eta horretarako sortutako matrikulan sartzea edo ez sartzea erabakitzeko konputatuak izateari dagokionez eragina duten arlo fisiko, ekonomiko edo juridikoko aldaketak jakineraztera obligatuak daude. Aipatu aldaketek hurrengo hilabetetik aurrera izango dute eragina.

5.- Emaizako matrikulan jasotako datuak sartzea, kentzea edo aldatzea ekintza administratibotzat joko da eta kargatutako kontzeptu ezberdinetarako dauden zergapekoen erroldari eragingo dio.

6.- Eskaera ezberdinen eta dagozkien agirien harrera, hala nola zergapekoari emandako laguntza eta informazioa, Udal Erregitru Orokorrek egingo du. Kudeatzeko eta kontrolatzeko ahalmena Gizarte-Zerbitzuetako departamentuari dagokio. Honek, edozein unetan, matrikulan sartutako subjektu pasiboei, beren benetako egoera ezagutzea ahalbideratuko duen edozein datu edo agiri eskatu ahal izango die. Zehazkiago, aipatu departamentuari dagokio eskaerak tramitatzea, matrikula osatzea eta jendaurrean ikusgai jartzea, errekursoak eta erreklamazioak ebaztea eta, orobat, honako arautegi honetako gaiei dagokienez zergapekoari laguntza eta informazioa ematea.

7.- Honako arautegi honetan ezarritako baldintzetariko edozein betetzen ez duen subjektu pasiboak hemen ezarritako exentzio eta hobari eskubideak galdu egingo ditu, bere egoera sozio-ekonomikoa aldatu zen unetik likidatzea zegozkion kuota guztiak ordaintzeari ekin beharko diolarik. Halaber, horretarako indarrean dagoen arautegiaren arauera zehatua izango da.

quedará prorrogada automáticamente con carácter anual.

4.- Asimismo los sujetos pasivos estarán obligados a comunicar las variaciones de orden físico, económico o jurídico que se produzcan en el ejercicio de las actividades gravadas y que tengan trascendencia a efectos de su computación para la determinación de su inclusión o no en la matrícula creada al efecto. Dichas modificaciones tendrán efectos a partir del mes siguiente.

5.- La inclusión, exclusión, o alteración de los datos contenidos en la Matrícula resultante se considerará acto administrativo y afectará al padrón de contribuyentes que exista para los distintos conceptos gravados.

6.- La recepción de las distintas solicitudes y de la documentación respectiva, así como la asistencia e información al contribuyente, la efectuará el Registro General Municipal. Las facultades de gestión y control corresponderá al departamento de Servicios Sociales, el cual en cualquier momento podrá exigir a los sujetos pasivos incluidos en la matrícula que faciliten cualquier dato o documento que permita conocer su situación real. En concreto corresponde a dicho departamento la tramitación de solicitudes, confección y exposición al público de la matrícula, resolución de recursos y reclamaciones e igualmente actuaciones de asistencia e información al contribuyente referidas a las materias del presente reglamento.

7.- Aquel sujeto pasivo que incumpliera cualquiera de las condiciones establecidas en el presente reglamento perderá los derechos de exención y bonificación aquí establecidos, debiendo proceder al abono de todas aquellas cuotas que le correspondía haber liquidado desde el momento en el que se cambió su situación socio-económica; asimismo será sancionado de acuerdo con lo regulado en la normativa vigente al efecto.

8.- Gastu deduzigarriak baldin badaude, interesatuak egindako gastua aldez aurretik justifikatu ondoren, egoera azalduko duen Gizarte-Zerbitzuetako Txostena aurkeztuko da.

9.- Exentzio eta hobari hauetarako aukera eduki ahal izateko, Udal Haziendarekiko zorduna ezin izan ahalko da, udal-zerga guztien ordainketan egunean egon beharko delarik.

10.- Arautzeko zaila den edo baremo hauetan jaso ez dagoen edozein egoera, Gizarte-Zerbitzuetako Batzordeak aztertuko du, kasu bakoitzean egokiena den erabakia ezarriko duelarik.

11.- Araudi honen eranskinean jasotako baremoak urtero aldatuko dira, automatikoki, ekitaldi bakoitzerako ezartzen den Efektu Multipleko Errentaren Indikadore Publikoaren (EMEIP) zenbatekoaren arabera. Indikadore horretan oin harturik finkatuko da taularen gainerakoa, han ezarritako proportzioak bere horretan mantenduz.

4. Artikulua.- Familiako Errentaren zenbatespena

1.- Errenta familiarraren kalkulu ekonomikoa, familiaren etxean elkarrekin bizi diren kide guztiek eskuratzen dituzten errendimendu eta errenta guztiak batzetik aterako da.

I.- LANEKO ERRENDIMENDUAK:

I.1.- Besteren konturako lanagatik dirusarreretatik datorren errendimendu netoa, eskatzailearen dirusarrera gordinetatik Gizarte-Segurantzari ordaindutako kotizazioen zenbatekoa, obligaziozko izaerako eskubide pasiboengatik eta mutualitateengatik ordaindutako dirukopuruak, Umezurtz Ikastetxeentzako edo antzeko Erakundeentzako obligaziozko kotizazioak eta besteren konturako lan pertsonalagatik dirusarrera

8.- Si existen gastos deducibles, se presentará, previa justificación del gasto contraído por el interesado, un Informe Social explicando la situación.

9.- Para poder optar a estas exenciones y bonificaciones no se podrá ser deudor de la Hacienda Municipal, debiendo estar al corriente del pago de todos los tributos municipales.

10.- Cualquier situación de difícil regulación o no contemplada en estos baremos será analizada por la Comisión de Servicios Sociales, quien establecerá la decisión más apropiada en cada caso.

11.- Los baremos recogidos en el Anexo de este reglamento serán modificados anualmente de manera automática de acuerdo con el importe del Indicador Público de Renta de Efectos Múltiples (IPREM) que se establezca para cada ejercicio. Dicho indicador será la base sobre la que se fijará el resto de la tabla manteniendo las proporciones en ella establecidas.

Artículo 4.- Estimación de la Renta Familiar:

1.- El cálculo económico de la renta familiar resultará de la suma de todos los rendimientos y rentas que obtengan la totalidad de los miembros que convivan en el hogar familiar.

I.- DE LOS RENDIMIENTOS DE TRABAJO:

I.1.- El rendimiento neto procedente de los ingresos de trabajo por cuenta ajena se obtendrá deduciendo de los ingresos brutos del solicitante el importe a que asciendan las cotizaciones satisfechas a la Seguridad Social, las cantidades abonadas por derechos pasivos y mutualidades de carácter obligatorio, las cotizaciones obligatorias a Colegios de Huérfanos o Instituciones similares y el dos por ciento sobre los ingresos brutos del trabajo

gordinen ehuneko bira deduzituz aterako da. Dirusarrera horiek nominaren edo pentsioen ordainagiriaren bidez kreditatuko dira.

I.2.- Dedukzio berberak aplikaziozkoak izango dira dirusarrerak dituzten etxeko gainerako kideentzat.

I.3.- Norberaren konturako errendumenduen zenbatespena, eta partikularki nekazal, merkatal edo lanbide ustiakuntzetatik datozenena, Banako Zenbatespen Objektibo Erraztuaren bidez burutuko da.

II.- ONDARETIKO ERRENDIMENDUAK:

II.1.- Ondasun Higiezinak.

- a) Jabetzapeko ondasun higiezin hiritar eta landatarren balioespena, dagokien katastroko balioaren bidez burutuko da.
- b) Hiritar izaerako inmiebleak ohizko etxebizitzaren izaera baldin badu, bere balioa baliabideen konpututik kanpo utziko da.
- c) Izaera hiritarreko beste balio higiezinaren balioa finkatzeko, dagokion katastroko balioa konputatuko da. Konputuaren eraginetarako, bederatzita mila euroko kopurua deduzituko da.
- d) Nekazaritza-abelazkuntzako ustiakuntzen kasuetan, etxeak edozein titulu juridikorengatik bere ustiakuntzarako daukakeen ondasun landatarren katastroko balioa hemezortzi mila eurotik beherakoa denean, beroriek konpututik kanpo utziko dira.

personal por cuenta ajena. Dichos ingresos se acreditarán mediante nómina o recibo de pensiones.

I.2.- Las mismas deducciones serán de aplicación al resto de los componentes del hogar que perciban ingresos.

I.3.- La estimación de los rendimientos por cuenta propia, y en particular los procedentes de explotaciones agrícolas, comerciales o profesionales, se realizará mediante el sistema de Estimación Objetiva Singular Simplificada.

II.- DE LOS RENDIMIENTOS DEL PATRIMONIO:

II.1.- Bienes Inmuebles.

- a) La valoración de los bienes inmuebles urbanos y rústicos en propiedad, se realizará por el valor catastral correspondiente.
- b) Si el inmueble de naturaleza urbana tuviera el carácter de vivienda habitual, el valor del mismo se excluirá del cómputo de recursos.
- c) Para la determinación del valor de otros bienes inmuebles de naturaleza urbana, se computará su correspondiente valor catastral, deduciendo a efectos del cómputo, la cantidad de nueve mil euros.
- d) En los casos de explotaciones agropecuarias, las mismas se excluirán del cómputo cuando el valor catastral de los bienes rústicos de que disponga el hogar para su explotación por cualquier título jurídico, sea inferior a dieciocho mil euros. Para el resto de explotaciones, cuando el valor catastral exceda esta cantidad, se descontará dicha cifra.

- e) Edozein kasutan ere, akuretatik eta akura-lagapenen edo lagapenen prezioetatik eskuratutako errendimendu guztiak konputatuko dira, hala ondasun landatarrak nola hiritarrak.

II.2.- Ondasun Higigarriak.

- a) Etxeko ondarearen osaketan tituluak, baloreak, gauzaten erraz diren kredituen eskubideak edo etxeko kideetarik edozeinen eskuera dauden banku-gordailuetako eskudirua bat datozen kasuetan, guztiak konputatuko dira.
- b) Errenta aldagarriko tituluak Burtsan duten kotizazioetatik baloratuko dira, beti ere bere kontabilitatezko balioetatik kotizatzen ari ez badira.
- c) Errenta finkoko tituluak beren balio nominaletatik baloratuko dira.
- d) Ostilamendu familiarra baliabideen konpututik guztiz salbuetsia egongo da, noiz eta bertan, salbuespen gisa, beren balioetatik, baliabide ekonomikoak daudela nabarmentzen duten eta gauzaten erraz diren ondasunak ez dauden.
- e) Ibilgailu motordunetan, balorazioa merkatuko prezioetan oinarrituz egingo da. Baloraziotik salbuetsiak geratuko dira hurrengo ezaugarrietakoren bat duen ibilgailu bakarra duten etxeak:

* Matrikulazioko data 10 urte baino zaharragokoa duen ibilgailua.

* Turismoetan 12 zaldi edo gutxiagoko potentzia fiskala edo traktoreetan 16 zaldi baino gutxiagokoa duen ibilgailua,

- e) En todo caso, se computarán el total de los rendimientos obtenidos por alquileres, precios de traspaso o de cesión, tanto de los bienes rústicos como urbanos.

II.2- Bienes Muebles.

- a) En el caso de concurrir a la formación del patrimonio del hogar títulos, valores, derechos de crédito de fácil realización o dinero en efectivo existente en depósitos bancarios a disposición de cualquiera de los miembros del hogar, se computarán la totalidad de los mismos.
- b) Los títulos de renta variable se valorarán por su cotización en Bolsa, y en caso de no estar cotizando por su valor contable.
- c) Los títulos de renta fija se valorarán por su valor nominal.
- d) El ajuar familiar estará exento en su totalidad del cómputo de recursos, salvo que en el mismo existan bienes que, excepcionalmente, por su valor, denoten existencia de medios económicos y sean de fácil realización.
- e) En los vehículos a motor, la valoración se realizará en base a los precios del mercado. Quedarán exentos de valoración aquellos hogares en que exista un solo vehículo con alguna de las siguientes características:

* Vehículo cuya fecha de matriculación tenga una antigüedad superior a 10 años.

* Vehículo cuya potencia fiscal sea igual o inferior a 12 caballos en

kamioietan 1000 kg-ko karga baliagarria duena edo ziklomotor eta motozikletetan 125 cc dituen.

2.- Baldin eta eskatzailea hango kide den etxeke ondarea osatzen duten ondasun mobiliario edo inmobiliario guztiak batera, aurreko arauen eredura kalkulatuta, 7.616,20 eurokoak edo gutxiagokoak badira, ondaretiko diru-sarrerarik ez dagoela joko da.

Aurreko atalean jarritako baremoa urtero errebisatuko da, Kontsumoko Prezioen Indizeen Sistemaren estatuko indize orokorrak aurreko hamabi hilabeteetan izan duen gorabeheraren ehunekoaren arabera.

Gainerako suposamenduetan, salbuetsitako oinarriaz gainera ondareko balorearen gaidikina ulertuko da Errenta familiar osotzat.

3.- Orokorki, honako Arautegi honetako I. Eranskinean jasota dauden urteko izaerako baremoak aplikatuko dira.

Horretarako, besteren konturako pentsioei edo soldatei buruzko lanen etekinetatik datozen diru-sarkinei, lehenbizi hileroko batez besteko baremoaren kalkulua zentabetsiko zaie, eta 14z biderkatuko da. Gainerako errenten kasuan, urteko zenbatekotik hilekoa ateratzeko, edo alderantziz, urteko etekinaren zenbatekoa 12z zatitzetik edo, hala badagokio, 12z biderkatzetik atzeratzen dena hartuko da.

III.- BESTE GASTU ETA DIRUSARRERA DEDUZIGARRIAK:

III.1. Izaera finalista ez-aldirokoa duten edo emergentzia sozialeko egoerak arintzeko diren laguntza sozialeetatik eta formaziorako, ikasketetarako eta tankerako beketatik datozen dirusarrerak, beti ere agiri bidez justifikatzen badira, beren osotasunean deduzituko dira konpututik.

turismos, a 16 caballos en tractores, o tiene 1000 Kg. de carga útil en camiones, o 125 c.c. en ciclomotores y motocicletas.

2.- Cuando el conjunto de todos los bienes muebles o inmuebles que compongan el patrimonio del hogar del que forme parte el solicitante, calculado de conformidad con las reglas anteriores, sea igual o inferior a 7.616,20 euros, se entenderá que no existen ingresos por patrimonio.

El baremo recogido en el apartado anterior será revisado anualmente de conformidad con la variación porcentual sufrida en los doce meses anteriores por el índice general nacional del Sistema de Índices de Precios de Consumo.

En los restantes supuestos se entenderá como Renta familiar íntegra, el exceso del valor patrimonial sobre la base exenta.

3.- Con carácter general se aplicarán los baremos de carácter anual que se encuentran recogidos en el Anexo I del presente Reglamento.

Para ello, a los ingresos procedentes de los rendimientos del trabajo referidos a pensiones o salarios por cuenta ajena, se estimara en primer lugar el calculo del baremo mensual medio y se multiplicara por 14. Para el resto de las rentas para la obtención del cómputo mensual a partir del anual, o viceversa, se entenderá el que resulta de dividir por 12 el importe de su rendimiento anual, o multiplicar en su caso.

III.- DE OTROS INGRESOS Y GASTOS DEDUCIBLES:

III.1. Los ingresos que procedan de ayudas sociales de carácter finalista no periódicas o para paliar situaciones de emergencia social, becas de formación, estudios y similares, siempre que se justifiquen documentalmente, se deducirán del cómputo en su totalidad.

III.2. Ohizko etxebizitza saltzetik sortutako dirusarrerak konpututik deduzitu egingo dira beroriek osoki tankera bereko etxebizitza erosten, edo negozio edo lanpostu propio batetan berrinbertitzen direnean.

III.3. Eritasun larria edo ebaketa kirurgikoa dela bide burututako gastuak, beti ere eskatzailearen etxea osatzen duten kideek erakunde publikoetatik edo osasun-mutualitateetatik inolako errenboltsorik edo konpentsaziorik jaso gabe ordaindu zituztela egokiro justifikatzen bada, beren osotasunean deduzituko dira baliabideen konpututik.

5. Artikulua.- Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Zehaztutako tasetan eta prezio publikoetan exentzioak eskuratzeko beteriko eskaera-orria Udaletxeko Erregistru Orokorrean aurkeztu beharko da, ondorengo agiriekin batera:

- Bizikidetzta-unitateko kide guztien N.A.N.aren fotokopia.
- Bizikidetzta-unitatearen dirusarreraren justifikagiria:
- Errentaren Aitorpenaren fotokopia edo horren ezean Aitorpengileen Zentsuan sartua ez dagoela dioen Haziendaren ziurtagiria.
- Alokairuetatik, pentsioetatik edo bestelako kontzeptuetatik eduki litezkeen dirusarreraren ziurtagiriak (azken nominen fotokopia eta/edo pentsioaren justifikagiriak).
- Autonomo gisa egindako lanengatik dirusarreraren kasuan, azken lau hiruhilabeteko Banako Zenbatespen Objektibo Erraztuaren fotokopia atxeki.

III.2. Los ingresos generados por la venta de la vivienda habitual se deducirán del cómputo cuando los mismos se reinviertan en su totalidad en la compra de vivienda del mismo tipo, o en un negocio o puesto de trabajo propio.

III.3. Los gastos realizados con ocasión de enfermedad grave o intervención quirúrgica, siempre que se justifique adecuadamente que fueron abonados por los miembros que integran el hogar del solicitante sin reembolso o compensación alguna por parte de entidades públicas o mutualidades sanitarias, se deducirán en su totalidad del cómputo de recursos.

Artículo 5.- Documentación a presentar.

La instancia de solicitud cumplimentada para obtener las exenciones en las tasas y precios públicos determinadas deberá ser presentada en el Registro General del Ayuntamiento , acompañada por los siguientes documentos:

- Fotocopia del D.N.I. de todos los miembros de la unidad convivencial.
- Justificante de ingresos de la unidad convivencial:
- Fotocopia de la Declaración de la Renta o en su defecto certificado de Hacienda de no estar incluido en el Censo de Declarantes.
- Certificados de ingresos que se tuvieran provenientes de salarios, pensiones u otros conceptos (fotocopia de las últimas nóminas y/o justificantes de la pensión).
- En caso de ingresos por trabajos de Autónomo, adjuntar la fotocopia de la Estimación Objetiva Singular Simplificada de los últimos 4 trimestres.

- Prestazio ekonomikoren bat jasotzen ari dela edo ez dela dioen INEM-en ziurtagiria.
- Dirusarreren eta ondasunen zinpeko ziurtagiria (Inprimakia Udaletxeko Erregistru Orokorrean).
- Banku-erakunde zeinetan kontuak dauzkatenez egindako egiaztagiria, bizikidetzaren unitateko kide guztiek kaudimenezko egoerari buruzkoa.
- Alegatutako edozein zirkunstantzia bereziren justifikagiria.
- Gizarte-Zerbitzuetako Departamentuak interesgarritzat jo dezakeen beste edozein agiri.
- Certificado del INEM de estar percibiendo o no alguna prestación económica.
- Declaración jurada de ingresos y bienes (Impreso en el Registro General del Ayuntamiento).
- Justificante emitido por la(s) Entidad(es) Bancaria(s) donde posean cuentas, del estado de la situación de solvencia de todos los miembros de la unidad convivencial.
- Justificación de cualquier circunstancia especial alegada.
- Cualquier otra documentación que el Departamento de Servicios Sociales pueda considerar de interés.

Baldin eta eskatzaileak eskatzen zaizkion agiri guztiak aurkeztuko ez balitu, hamar eguneko epean dokumentazioa osabete dezan errekerituko zaio. Eskakizun hau bete ezean, espedientea artxibatutzat emango da, beronek inolako eraginik ez duelarik izango eta, berriro ere dagokion eskaera formulatzea interesatuko balitzaio, tramitazio osoari hasieratik ekin beharko liokeelarik.

Ordenantza hau, zeinen I. Eranskina atal osakide bait dira, behin-betikoz onetsi zuen Korporazioaren Plenoak 1.998(e)ko azaroaren 21(e)an eta 1.999(e)ko urtarrilaren 1etik aurrera sartuko da indarrean, eta bere azken aldaketa 2006(e)ko urriaren 6(e)an onartu zen, 2007(e)ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean eta horrela segituko du aldatzea edo deuseztatzea erabakitzen den arte.

En caso de no presentarse por el solicitante la totalidad de la documentación establecida se le requerirá para que en el plazo de diez días complete la misma; en caso de incumplimiento de este requisito se dará por archivado el expediente no teniendo éste efecto alguno, debiendo volver a iniciar desde el principio toda la tramitación si nuevamente le interesare formular la solicitud correspondiente.

La presente Ordenanza, de la que son parte integrante el Anexo I quedó aprobada definitivamente por el Pleno de la Corporación celebrado el día 21 de noviembre de 1.998 y entrará en vigor el 1 de enero de 1.999, su última modificación se aprobó el 6 de octubre de 2006, entrará en vigor el 1 de enero de 2007 y así seguirá hasta que se acuerde su modificación o derogación.

KONTUHARTZAILEAK

ALKATEAK

IDAZKARIAK

ANEXO I. ERANSKINA

URTEKO BAREMO EKONOMIKOA (2010) / BAREMO ECONOMICO ANUAL (2010)

<u>Etxe bakoitzeko kide kopurua</u>	<u>Urteko Gutxienezko Sarrerak</u>	<u>Urteko Batez besteko Sarrerak</u>	<u>Urteko Gehienezko Sarrerak</u>
<i>Nº de miembros</i>	<i>Ingresos Mínimos Anuales</i>	<i>Ingresos Medios Anuales</i>	<i>Ingresos Máximos Anuales</i>
1	7.455,14	9.691,68	11.145,43
2	9.691,68	11.145,43	12.594,34
3	11.145,43	12.594,34	14.105,66
4	12.594,34	14.105,66	14.846,21
5	14.105,66	14.846,21	15.588,52
6	14.846,21	15.588,52	16.328,97
7	15.588,52	16.328,97	17.063,78
8	16.328,97	17.063,78	17.806,05
9	17.063,78	17.806,05	18.562,81
10	17.806,05	18.562,81	18.562,81

HILEKO BAREMO EKONOMIKOA / BAREMO ECONOMICO MENSUAL

<u>Etxe bakoitzeko kide kopurua</u>	<u>Urteko Gutxienezko Sarrerak</u>	<u>Urteko Batez besteko Sarrerak</u>	<u>Urteko Gehienezko Sarrerak</u>
<i>Nº de miembros</i>	<i>Ingresos Mínimos Mensuales</i>	<i>Ingresos Medios Mensuales</i>	<i>Ingresos Máximos Mensuales</i>
1	532,51	692,26	796,10
2	692,26	796,10	899,60
3	796,10	899,60	1.007,55
4	899,60	1.007,55	1.060,44
5	1.007,55	1.060,44	1.113,47
6	1.060,44	1.113,47	1.166,36
7	1.113,47	1.166,36	1.218,84
8	1.166,36	1.218,84	1.271,86
9	1.218,84	1.271,86	1.325,92
10	1.271,86	1.325,92	1.325,92